



2016KO ABUZTUKO EFEMERIDEAK

(Ordu guztiak denbora uninertsalean eman dira, gehitu 2 ordu ofiziala kalkulatzeko)

BEHATZEKO PROPOSAMENAK

Begi hutsez:

Hilaren 3an, 11:00an, Perseoseko Algol izar aldakorraren distira minimoa. 3,3tik hurbil dago haren magnitudea. Hilaren 6an, 9an, 12an, 14an, 17an, 20an, 23ean, 26an eta 29an izango dira beste minimoak
Hilaren 4an, 9:00an, Delta Cephei izar aldakorraren distira maximoa; magnitudea 3,5etik 4,4ra aldatzen zaio 5,366 egunean behin. Hilaren 9an, 15an, 20an, 25an eta 31an izango dira beste maximoak.

Hilaren 6an, 21:00an, Eta Aquilae izar aldakorraren distira maximoa; magnitudea 3,5etik 4,4ra aldatzen zaio 7,177 egunean behin. Hilaren 14an, 21an eta 28ean izango dira beste maximoak.

Hilaren 23an, gauaren hasieran Marte eta Saturno ikus daitezke, eta haien azpian Antares izarra, hegoalde hego-mendebaldeko zeruertz gainean.

Hilaren 30an. Hilaren amaiekin eta iraileko erdiralderarte egunsentia baino lehenago, zodiakoaren argia ikus daiteke ekialde ipar –ekialdeko zeruertzean. Leo, Cancer eta Geminis gurutzatuz eta Tauro eta Pleyadeei begira.

Prismatikoekin:

Hilaren 4an, mendebaldeko zeruertz gainean, eta Artizarretik gertu, Merkurio ikus daiteke ilgora finaren ondoan,

Hilaren 27an, arratsalde amaieran, Artizarra eta Jupiter oso gertu ikusiko dira mendebaldeko zeruertz gainean.

ILARGIA ABUZTUAN

02 20:46an, Ilberria.

04 04:13an, konjuntzio geozentrikoan Artizarrekin, 2,8^ora.

04 07:40an, konjuntzio geozentrikoan Leoko Regulo izarrarekin, 1,6^ora.

04 21:45an, konjuntzio geozentrikoan Merkurioarekin, 0,5^ora.

05 07:50an, goranzko nodotik pasatuko da.

06 03:21an, konjuntzio geozentrikoan Jupiterrekin, 0,2^ora.

08 16:53an, konjuntzio geozentrikoan Virgoko Spica izarrarekin, 5,5^ora.

09 23:59an, Apogeotik pasatuko da. Ilargiaren eta Lurraren arteko distantziarik handiena: 404.270 km (aurreko perigeoan baino 34.616 km gehiago).

10 18:22an, Ilgora.

12 01:04an, konjuntzio geozentrikoan Marterekin, 8^ora.

12 12:51an, konjuntzio geozentrikoan Saturnorekin, 3,6^ora.

12 13:17an, konjuntzio geozentrikoan Eskorpioko Antares izarrarekin, 9,8^ora.

13 librazioa minimoa latitudean ($b=-6,8^{\circ}$)

16 librazioa minimoa longitudean ($l=-5,3^{\circ}$) momentu aproposa terminadorean Aristarco eta Herodoto kraterrak ikusi ahal izateko, hala nola de Schröter bailara aurkitzeko,

18 09:28an, Ilbetea.

19 11:21an, konjuntzio geozentrikoan Neptunorekin.

19 14:12an, beherunzko nodotik pasatuko da.

22 01:10 an, Perigeotik pasatuko da, Ilargiaren eta Lurraren arteko distantziarik txikiena 367.048 km (aurreko apogeoan baino 37.222 gutxiago).

22 11:48an, konjuntzio geozentrikoan Uranorekin.

24 23:52an, konjuntzio geozentrikoan Pleyadeekin, 9,2^ora.

25 03:42an, Ilbehera.

25 16:41an, konjuntzio geozentrikoa Tauroko Aldebaran izarrarekin, 0,2^ora.

26 librazioa maximoa latitudean ($b=6,8^{\circ}$) Platon kraterra,, eta Pico, Tenerife eta Recti mendiak ikus daitezke eurien itsasoan.

PLANETAK ABUZTUAN (LURRAREN ORBITA-ABIADURA: 107.280 km/h)

Merkurio (Hilaren erdiralderarte ikusi ahal izango da arratsalde amaieran) orbita-abiadura 172.440 Km/h



Hilaren 15 arte ikusi ahal izango dugu arratsalde amaieran mendebaldeko zeruertze gainean, eguzkia sartu eta 50 minutura ezkutatu da, eta zeruertze garbi baten laguntzaz. Nahiz eta 16an den bere elongazio maximoa, ekliptikaren hegoaldera duen egoerak ez digu behatzeko aukerik emango. Igoera zuzena, 10h eta 12h artean, deklinazioa 11° eta -3° bitarte. Hilabetea Leon hasi eta Virgo amaitzen du. Magnitudea 0,2tik 1,9ra jetsiko da.

Artizarra (Eguzkia sartzen denetik, eta minutu gutxiren tartean, ikusi ahal izango da) orbita-abiadura 126.000 Km/h

Behatzeko egoera zailan aurkitzen da, mendebalde ipar-mendebaldeko zeruertzetik 2° ra besterik ez bait da aurkitzen hilaren 1an, eta 4° ra 31an. Gainera toki hauetan turbulentsia atmosferikoa handia da, bereiziki data hauetan. Ekliptikaren inklinazioak ez dio gehiago igotzen uzten. Bere kokapen eta dizdirak, bere kolorazioan aldaketak, orain dela urte batzuk OVNI fenomenomenoa sustatu zuen. Igoera zuzena 10h eta 12h artean. Deklinazioa 14 eta 1 en artean. Hilabetea Leon hasten da Virgo amaitzeko. Magnitudea -3,9an mantenduko du.

Marte (Gauaren hasieran ikusi ahal izango da) orbita-abiadura 86.760Km/h

Gau hasieran hego-egoekialde horizontetik 15° baino gutxiagoko altueran ikusi ahal izango da. Behaketa baldintzak okertuz joango dira turbulentsia atmosferikoa eta ekliptikaren inklinazioagatik. Igoera zuzena 16h eta 17h artean. Deklinazioa -23° eta -25° artean. Hilabetea Escorpion hasten da, Ofiucotik bat batean pasaz eta Escorpion berriro sartzeko. Magnitudea -0,9 tik -0,5 ra jetsiko da.

Jupiter (Gauaren hasieran bakarrik ikusi ahal izango da) orbita-abiadura 47.160Km/h

Eguzkia sartu eta ordu t'erdira ezkutatu da hilaren 1an, eta ordu bat baino lehenago 31an. Behaketarako aukerak mendebaldeko zeruertzean okerragorantz egingo dute, hala ere honen disdirak begi hutsez ikusgai egiten du. Igoera zuzena 12h, deklinazioa 4° eta 2° artean. Hilabetea Leon hasi eta Virgo pasakoa da laster. Magitudea -1,7an mantenduko da.

Saturno (Gauaren lehen erdikaldean ikusgai) orbita-abiadura 34.560 Km/h

Erretrogradazio kiribilan hilaren 13 an amaituko du. Yegoalde hego-mendebalde horizontetik 20° egongo da hilaren 1 are gau hasieran. Eguzkia sartu eta ia 4 ordu sartzen da. Bere irudiak degradazio puntu bat jasango du inguruko turbulentsiengatik, data hauetan bereiziki. Igoera zuzena 16h, deklinazioa -20° . Hilabete guztia Ofiukon emango du. Magnitudea 0,4tik 0,5ra pasako da.

Hilaren 4an 18:04ean, Titan elongaziorik handienez planetatik mendebaldera.

Hilaren 12an. 17:43an, Titan elongaziorik handienez planetatik ekialdera.

Hilaren 20an 16:44an, Titan elongaziorik handienez planetatik mendebaldera.

Hilaren 28an. 16:39an, Titan elongaziorik handienez planetatik ekialdera.

Urano (Gauaren bigarren erdikaldean ikusgai) orbita-abiadura 24.480 Km/h

Hego-ekialde horizontearen gainetik 40° tara ikusgai gauaren erdialdetik aurrera. Igoera zuzena 1h, deklinazioa 9° . Hilabete guztia Piscisen. Magnitudea zerbait igoko da 5,8 tik 5,7 ra.

Neptuno (Zailtasun handiekin ikusgai) orbita-abiadura 19.440 Km/h

Ekialde hego-ekialdeko zeruhertz arrasean mantenduko da. Igoera zuzena 23h, deklinazioa -8° . Hilabete guztia Akuarion. Magnitudea 7,8n mantenduko da.

APIRILEKO BESTE EFEMERIDE BATZUK

-01 Asteartea. Eguedian, 2.457.602. egun juliotarra hasiko da.

-Egunak 14 ordu eta 32 minutuko iraupena du hilaren 1an, eta 13 ordu eta 31 minutukoa hilaren 31an. Ordu eta 21 minutuko diferentzia du, beraz eguzki argia hilabete honetan gutxitu egiten da.

-10 11:34an, itxuradenez eguzkia Leo konstelazioan sartuko da ($138,26^{\circ}$)

-12, 13:00an, aldera, lurra Swift-Tuttle komentak utzitako hauts kosmikoaren arrastoa gurutzatuko du. Honek Perseida iheskorak eragingo ditu. Intentsitate gailurra gertatu baino 5 ordu lehenago "anai" bate gongo da baita 10 ordu beranduago ere. Kometa 133,28 urteko periodokoa da, 1862 aren Uztailan aurkitu zen eta lurra ibilbide bera duen elementuetatik handiena da (26 km ko diametroa). Kalkuluek, kometa gerturatzeko handiena 4479 urterako aurrekusten dute, talka egiteko %0,0001 eko probabilitatearekin.

-Hilaren 22an, astrologiaren arabera, eguzkia Virgo sartuko da (150°). "Seinu zodiakalaen" luzera zelestearen limiteek eta izen bera daramaten zodiakoaren konstelazioen ez dute bat egiten

-Hilaren 31an, 12 tan, denboraren ekuazioa balio gabekoa da.